

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Euskal Herriko Unibertsitatea

Universidad del País Vasco

2021



AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Pertsonala.....	11
III.3 Administrazioko kontratazioa	11
III.4 Beste batzuk.....	13
III.5 Fundazioak	13
IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA.....	14
IV.1 Finantzaren analisia	14
IV.2 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna	16
V. URTEKO KONTUAK	17
V.1 EHU.....	17
V.2 Fundazioak.....	20
ERANSKINAK	23
A.1 Alderdi orokorrak	23
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	24
A.3 Pertsonaleko gastuak.....	26
A.4 Funtzionamendu-gastuak	31
A.5 Inbertsio errealak, ibilgetua eta ondare garbia	32
A.6 Tasak eta bestelako sarrerak	34
A.7 Jasotako kapitalezko transferentziak eta arruntak.....	35
A.8 Aldi bateko finantza inbertsioak	36
A.9 Zorra.....	37
A.10 Zordunak	38
A.11 Hartzekodunak	39
A.12 Administrazioko kontratazioaren analisia	40
A.13 Fundazioak	45
ALEGAZIOAK	47



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	59
I. INTRODUCCIÓN	61
II. OPINIÓN.....	62
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	62
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	62
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	64
III.1 Presupuesto y contabilidad	64
III.2 Personal.....	65
III.3 Contratación administrativa	65
III.4 Otros	67
III.5 Fundaciones	67
IV. ANÁLISIS FINANCIERO Y ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA	68
IV.1 Análisis financiero.....	68
IV.2 Estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera	70
V. CUENTAS ANUALES.....	71
V.1 UPV/EHU.....	71
V.2 Fundaciones	74
ANEXOS	77
A.1 Aspectos generales.....	77
A.2 Presupuesto y contabilidad	78
A.3 Gastos de personal	80
A.4 Gastos de funcionamiento.....	85
A.5 Inversiones reales, inmovilizado y patrimonio.....	86
A.6 Tasas y otros ingresos	88
A.7 Transferencias corrientes y de capital recibidas.....	89
A.8 Inversiones financieras temporales	90
A.9 Deuda.....	91
A.10 Deudores.....	91
A.11 Acreedores	93
A.12 Análisis de la contratación administrativa.....	94
A.13 Fundaciones	99
ALEGACIONES	101

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriarenren 6a

Vitoria-Gasteiz, a 6 de noviembre de 2023



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AZL	Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BGAE	Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAL	Euskadiren Ondareari buruzko Legea (2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiren Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko dena).
EB	Unibertsitate Eskola.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
ED	Errege Dekretua.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
EUEK	Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia.
EUSL	3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
IGET	Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa.
II	Irakasleak eta ikerlariak.
LPZ	Lanpostuen zerrenda.
MUFACE	Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Nagusia.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
SPAJL	40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
ULO	6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa.
UUKK	Urteko kontuak.
XG	Xedapen Gehigarria.
ZBM	Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa.



I. SARRERA

HKEEK EHUren 2021eko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-jardueraren fiskalizazio-lana egin du, Epaitegia arautzen duen 1/1988 Legean eta Urteko Lan Programan ezarritakoari jarraiki.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ezargarria zaion araudia bete dela honako alor hauetan: aurrekontua, zorpetzea, langileria, administrazio- kontratazioa, dirulaguntzak eta diru-sarrerak.
- Kontularitza: EHUren urteko kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.

Gure lana izan da kanpoko enpresa batek gauzatutako EHUren Urteko Kontuen auditoretzako txostena aztertzea eta horretarako, auditoreen lan paperetan kontuak euskarrituak daudela egiaztatu dugu eta beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- EHUren finantza analisia.

Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren akatsak «Barne kontroleko sistemai eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Gainera, lanaren zabalak EHUK fundazio-zuzkiduraren % 100 eman dien fundazioen 2021eko ekitaldiko fiskalizazio-lana barne hartu du; hona hemen zein diren:

- Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa.
- EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa.

Bestalde, Txosten ekonomikoaren eranskinak Jakintza Lanezko Ikerkuntzaren (Euskoiker Fundazioa) Urteko Kontuak ere jaso ditu, zeinari EHUK sortze-zuzkiduraren % 50 eman baitio.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. EHUK Irakasle eta Ikerlariei 439.471 euro ordaindu dizkie osagarrien eta ordainsarien parekatze kontzeptuan, eta horiek ez daude arautuak unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko araudian (ikus A.3).
2. 2021eko abenduaren 31n aldi baterako lan kontratua zuten irakasleek eta ikerlariek irakasle-plantillaren % 40ko muga gainditu dute, ULoren 48.5 artikuluan finkatutakoa (ikus A.3).
3. Tresna higienikoak hornitzeko esparru-akordioaren lizitazioa (11. espedientea), 536.445 euroren balio zenbatetsia duena, ez da argitaratu EBAOn, baina bai kontratatzailearen profilean (ikus A.12.1).
4. Hornidura eta zerbitzu jakin batzuetarako kontratuen lizitazio eta esleipenean izandako atzerapenaren ondorioz, 1,1 milioi euroren gastuak aitortu dira kontratu estaldurarik gabe (ikus A.12.2).
5. Geletako altzariak hornitzeko, muntatzeko eta instalatzeko kontratuaren hasierako exekuzioan izandako desbideratzeek kontratuaren zenbatekoa % 50 baino gehiago handitzea ekarri zuten. Kontratu hori 2021ean luzatu da, eta ezarritako urterokoa gainditu du: 55.619 euro (aipatutako urtekoaren % 100) eta kontratuaren zenbatekoaren % 50, dagokion aldaketa onartu edo kontratua suntsiarazi gabe (ikus A.12.2).

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1etik 5era bitarteko paragrafoetan azaldutako salbuespenak alde batera, EHUK eta bere fundazioek zuzentasunez bete dute 2021eko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. EHUK, balantzeko “Epe laburreko zorrak” epigrafeko “Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburreko zorrak” kapituluan erregistratzen ditu jasotako dirulaguntzak, zeinaren gastu finantzatua ez baita gauzatu; gastu hori data horretako berariazko geldikinarekin bat dator eta horren saldoa 92,1 milioi euro da (ikus A.2). Hori osatzen duten kontu-sailen eta programen lagin bat aztertu ondoren ondorioztatu dugu horietako zenbait gastu orokorretarako geldikintzat hartu behar liratekeela eta honenbestez, ezin atera dezakegu ondorioz 2021eko abenduaren 31ko berariazko geldikinaren eta gastu orokorretarako geldikinaren arteko xehakapenaren zuzentasunaz. Ondare-kontabilitateko terminoetan, horrek esan nahi du “Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburreko zorrak” balantzeko kontu-sailaren saldo zati batek (ikus A.11), zenbatetsi ezin denak, ondare garbiaren atal behar lukeela izan.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, EHUren eta haren fundazioen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2021eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 2021eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontuko aldaketak

- Aurrekontuko aldaketen araubidea baliatuta, 2021eko aurrekontuan 12 milioi euroren kredituak zuzkitu ziren eta ekitaldi itxieran kopuru horrek kapituluan jaso segitzen zuen, aurrekontuko kontu-sail jakinei esleitu gabe. Hona hemen xehapena:

Euroak milakotan					
	GELDIKINEN	KREDITU	BALIOGAB.	TRANSFER. ETA	
KAPITULUAK	TXERTAKETA	GAIKUNTZA	BAJAK	BIRBANAK.	GUZTIRA
Pertsonaleko gastuak	5.830	229	(22)	6.448	12.485
Funtzionamendu-gastuak.....	5.911	87	-	(7.643)	(1.645)
Transferentzia korranteak	-	-	-	3	3
Inbertsio errealak	1.055	-	-	147	1.202
GUZTIRA	12.796	316	(22)	(1.045)	12.045

Aldaketa horiek berariazotasun printzipioa urratzen dute, zeinaren arabera haien eraginpeko aurrekontuko kontzeptuak zeintzuk diren berariaz adierazi behar duten.

- 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko irailaren 30era arte gaitutako kredituak xehetasunez jasotzen dituen zerrenda EHUko Ekonomia Batzordean aurkeztu zen 2021eko abenduaren 14an, eta 2021eko 4. hiruhilekoari dagozkionak 2023ko apirilaren 5ean, baina, araudi erregulatzailearen arabera, hiru hilean behin aurkeztu beharko litzateke.

Bestalde, EAetik jasotako transferentzia korranteengatiko diru-sarreretarako kredituak gaitzeko espedienteek ez dute barne hartzen aldaketaren beharra justifikatzen duen euskarri-dokumentazioa (ebazpenak, kontratuak edo hitzarmenak).

Aurrekontua onestean atzerapena

Gobernu Kontseiluak 2021eko ekitaldiko Aurrekontu Proiektua 2021eko martxoaren 18an onartu zuen eta Gizarte Kontseiluak aurrekontua urte horretako apirilaren 21ean onartu zuen; ordea, ekitaldia hasi aurretik onartu behar zatekeen.



Dirulaguntzen erregistroa

- Unibertsitateak ez du jasotzen dituen dirulaguntzak kontrolatzeko sistema bat, zein dirulaguntzak finantzatzen dituzten aktibo finkoak eta zeinek gastu arruntak bereizteko bide emango diona; honenbestez, ezin identifikatu izan ditugu ekitaldiko emaitzaren kontuan diru-sarreretan dauden dirulaguntzak; horiek egozteko dauden ondare-gehikuntzetan egon behar lukete, bi-biak ere Ondare garbiko idazpuruak. Egoera berean daude sarreren aurrekontuko IV. eta VII. kapituluetan erregistratutako dirulaguntzak.

Barne kontrola

Barne Kontrolako Zerbitzuaren jarduera-planak auditoria bidez eta gerora ekonomia- eta finantza-jarduera egiaztatuta gauzatzen dira, eta arloka mugatutako berrikuspena aurreikusten dute. Barne Kontrolako Zerbitzuak likidatu edo kudeatu ez diren 2021eko ekitaldiko hainbat gastu antzeman ditu, zerbitzuagatiko kalte-ordainen kontzeptukoak, EHUren araudia urratuz.

EHUren gastuak eta diru-sarrerak behar bezala kontrolatzen direla ziurtatzeko, legezkotasun-, eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioekin bat etorritz, komeni da alde aurreko fiskalizazio-araubide bat ezartzea, kontu-hartzailtzak duen prebentzio-izaera bermatzeko, aurrekontu-diziplinari, gastuak kudeatzeko prozedurei, diru-sarrerei eta funts publikoen aplikazioari buruzko arauak betetzen direla ziurtatzeko.

III.2 PERTSONALA

- EHUk 2015eko uztailaren 23tik ez ditu argitaratu EHAAn irakasle eta ikertzaileen LPZren aldaketak eta eguneratzeak.
- EHUko berezko tituluetan, EHUko irakasleek emandako irakaskuntza eta praktiken tutoretza ordaintzen da tituluaren memorian jasotakoaren arabera. Gomendagarria da EHUko irakasleei egiten zaizkien ordainketak, kanpoko irakasleekin jokatzeko den moduan, irakaskuntzako likidazio-agiri batekin egitea, titulu propioaren zuzendari akademikoak izenpetuta, eta balio-neurtzea irakasle bakoitzak titulu propioetan orduko kobratzen duen prezioari muga jartzeko aukera .

III.3 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

EHUk ez du onartu Urteko Kontratazio Plana, SPKLren 28.4 artikuluan jasota dagoena; plan horrek erregulazio harmonizatuaren peko kontratuak gutxienez jaso behar ditu.

2021ean 26,6 milioi euroan esleitutako hogeit hamar kontratazio-espeditente eta aurreko urteetan esleitutako beste hamaika espeditente -2021ean 23,3 milioi euroren exekuzioa izan dutenak- aztertu dira. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu (ikus A.12.1):

- 2021ean abiarazitako espeditente bat bera ere ez da bitarteko elektronikoen bidez izapidetu. Hala ere, 2022ko otsailetik aurrera bitarteko elektronikoen bidez izapidetzen da.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Argitalpen elektronikoak hornitzeko espedienteak 7,5 milioi euroan adjudikatu dira (6, 8 eta 9 zk. espedienteak), eskusibotasunagatik publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, horien banaketa eskubideak zituen argitaletxeari. Espedientean argitalpen elektroniko horiekiko interesa dokumentatu beharko litzateke, eta lizitazioa ahalbidetzen duen arrazoizko alternatibarik edo ordezkorik ez dagoela justifikatu. Era berean, kontratuaren egiturazko elementuak, hala nola prezioa eta xedea, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaren eta argitaletxeen artean sinatutako hitzarmen baten bidez aldez aurretik definitu direnez, erosketa zentralizatuko sistema bati atxikitzea (SPKLren 238. art. eta horiekin bat datozenak) edo kontratazio bateratua egitea (SPKLren 31.3 art.) gomendatzen dugu. Gainera, aldez aurretik ordaindutako urteko batez besteko saldoen fidantza jartzea gomendatzen da (8. eta 9. espedienteak).
- Zerbitzuko bi espedientetan, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bitartez 507.747 euroan esleitutakoetan (16 eta 17 zk. espedienteak), memoriak justifikatzen dute zerbitzu hauek aplikazioen adjudikatariak soilik egin ditzaketela. Aplikazioen erosketa/berritzea mantentze-lanekin batera lizitatzea gomendatzen da, prestazio mota horiek aldian-aldian lehiatzeko.
- Liferay plataformaren esparruan web edukiak editatzeko eta garatzeko enprekin egindako Esparru Akordioan, 930.000 euroan esleitu eta 2021ean 176.953 euroan exekutatu zena (29. espediente), ez da jasotzen Esparru Akordioan oinarrituta egindako prestazioen harrera- edo adostasun-akta. 2021ean 1,8 milioi euroan egikaritutako hiru espedientetan (23, 25 eta 26 zk. espedienteak), ez dira sinatu pleguetan eskatutako harrera partzialeko aktak.

Beste alderdi batzuk

- EHUk kontratu txikien administrazioko kudeaketa osoa egiteko bide emango duen informatikako erreminta bat du, hau da, eskabidea jasotzen denetik kontratu txikiaren ordainketara artekoa. Alabaina, tresna horrek ez ditu unitate organikoek tramitatutako kontratu txiki guztiak jasotzen. Gainera, ez dira kasu guztietan izapidetu kontratazio atalak egindako txostena jasoko duten espedienteak, kontratuaren beharra arrazoitu, gastua onartu eta kontratazioko arau orokorrak saihesteko kontratuaren xedea ez dela eraldatu justifikatuko dutenak.
- 2021eko ekitaldian izaera bertsuko ondasun- eta zerbitzu-kontratazioak gauzatu dira, guztira 5,7 milioi eurorenak; gure iritzira, aztertu egin beharko liriteke eta homologatu daitezkeen hornidurak eta aurreikus daitezkeen zerbitzuak identifikatu, hartara kontratazioa prozedura bakar batean egin ahal izateko (ikus A.12.2).
- EHUk 2021ean zerbitzu publikoak emateko hamaika espediente gauzatzen jarraitu du; zerbitzu publiko horiek emateko jabari publikoko ondasunak erabili behar dira; horiek, baina, ez ziren denbora zehatz baterako eman eta ez dago, halaber, prestazioen edo kontratu prezioaren justifikaziorik. Bestalde, 2021ean exekututzen jarraitzen du zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu bat, azken luzapen aldia 2019an iraungi bazen ere (ikus A.12.2).



Lankidetza hitzarmenak

2021ean EHUK izenpetutako hamahiru lankidetza hitzarmen aztertu dira eta honako hau azaleratu da:

- Bi lankidetza-hitzarmenetan, ikerketa-proiektu baterako gizarte-zerbitzuetako erakunde batekin sinatutako batean eta erakunde pribatu batekin sinatutako beste batean, aurreikusten da luzapena isilekoa izango dela; ordea, araudiak esanbidezkoa izan behar duela agintzen du.
- Gainera, lau hitzarmenetan, horietatik hiru fundazio batekin eta bat erakunde pribatu batekin egindakoetan, ez da aurreikusten hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismorik, sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzeko.

III.4 BESTE BATZUK

- EHUK bete egin du 2021ean araudiak eskatutako merkataritzako eragiketen ordainketarako batez besteko epea. Nolanahi den ere, guztira 192.955 euroren zenbatekoan egindako 126 ordainketak (guztizkoaren % 0,2) ez dute betetzen ordainketa-epea.

III.5 FUNDAZIOAK

- EHUren Medikuntza eta Zientzien Historiaren Museoaren Fundazioak bere estatutuetan jaso behar luke EHUri atxikia dagoela, SPAJLren 129. artikuluan xedatutakoa betez.
- EHUko Udako Ikastaroak Fundazioaren zerbitzu-espeditante batetan, 306.011 euroan esleitutakoan (2 espediente), balio-judizio baten arabera kuantifikazioa duten esleipen-irizpideei automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa ematen zaie, eta ez da Adituen Batzorderik izendatu eskaintzak baloratzeko (ikus A.13.2).



IV. EHU-REN FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

IV.1 FINANTZAREN ANALISIA

Azken ekitaldietako bilakaera finantzarioa honako hau izan da:

	Euroak milakotan		
	2019	2020	2021
Tasak.....	36.891	36.011	39.704
Kanpoko kontratuak.....	8.738	8.733	9.600
Bestelako sarrerak	5.485	3.004	4.583
Transferentzia korronteak: EAE, urteko gastuaren finantzaketa.....	265.408	274.720	288.213
Transferentzia korronteak: bestelako dirulag. helburudunak	105.116	82.258	103.924
Ondare-sarrerak	602	227	359
SARRERA KORRONTEAK	422.240	404.953	446.383
Pertsonaleko gastuak.....	(344.290)	(353.724)	(363.428)
Funtzionamendu-gastuak	(63.339)	(55.450)	(61.849)
Gastu finantzarioak	(340)	(250)	(242)
Transferentzia korronteak.....	(8.736)	(7.494)	(7.690)
GASTU KORRONTEAK	(416.705)	(416.918)	(433.209)
EMAITZA KORRONTEA	5.535	(11.965)	13.174
Kapital transferentziak (sarrerak-gastuak)	23.901	27.780	43.377
Inbertsio errealak.....	(17.259)	(20.973)	(19.633)
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA	6.642	6.807	23.744
Pasibo finantzarioak (sarrerak-gastuak)	26	-	-
Aktibo finantzarioak (sarrerak-gastuak).....	(343)	(2.528)	(1.499)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(317)	(2.528)	(1.499)
EKITALDIAREN EMAITZA	11.860	(7.686)	35.419
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(4.818)	(6.700)	(8.984)
AURREKONTUAREN EMAITZA	7.042	(14.386)	26.435
BERARIAZKO GELDIKINA	76.077	69.118	92.143
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	162	(3.417)	12
DIRUZAINZA GELDIKINA	76.239	65.701	92.155
ZORPETZEA	13.699	9.262	7.670

Emaizta korrontea

2021eko diru-sarrera arruntak 41,4 milioi euro handitu dira (% 10,2) 2020. urtearekin alderatuta; izan ere, Eusko Jaurlaritzak doktoretza ondoko eta aurreko ikertzaileak kontratatuzeko ematen dituen 2020ko eta 2021eko dirulaguntzen deialdiei dagozkien dirulaguntza helburudunak handitu egin dira, eta biak aurrekontu-sarrera gisa erregistratu dira 2021. ekitaldian.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastu arruntak % 3,9 igo dira 2020ko ekitaldiarekin alderatuta (16,3 milioi euro), langileen gastuak % 2,7 handitu baitira (9,7 milioi euro) eta funtzionamendu-gastuak % 11,5 (6,4 milioi euro).

Horregatik guztiagatik, emaitza korrontea 2020an 12 milioi euro negatibo izatetik, 2021ean 13,2 milioi euroren emaitza positiboa izatera aldatu da.

Kapital-eragiketak

Ekitaldi fiskalizatuan, kapital-transferentzien ondoriozko sarrerak 15,6 milioi euro hazi dira eta inbertsio errealak 1,3 milioi euro jaitsi; horrenbestez, kapital-eragiketen superabita 6,8 milioi eurorena izan da 2020an, eta 23,7 milioi eurorena 2021ean.

Zorpetzea

EHUk ez du 2021ean zorpetu beharrik izan, azken 10 ekitaldietan bezala (ikus A.9).

Diruzaintza geldikina

2021ean diruzaintza geldikina 26,5 milioi euro gehitu da 2020ko ekitaldiaren aldean eta berriazko geldikina, berriz, 23 milioi euro.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

2020ko irailaren 30ean, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek 2020ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak adostu zituzten. Ondoren, Ministroen Kontseiluak, 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, 2020rako eta 2021erako zerga-arauak kentzea onartu zuen. Ondorioz, 2021eko ekitaldiari dagokionez ez da aplikagarria aipatutako helburuak betetzea eta erreferentzia soil modura hartu behar dira.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 EHU

A.2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

KAPITULUAK	HASIERAKO		ALDAK.	B.BETIKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGAZ.	KOB.R./ ORDAINK.	KOB.R./ORDAIN. GABE	% EXEK.
	ERANSK.	AURREK.						
DIRU-SARRERAK								
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.6	52.040	3.897	55.937	53.887	50.751	3.136	96,3
4. Transferentzia korranteak	A.7	366.805	51.684	418.489	392.137	338.651	53.486	93,7
5. Ondare-sarrerak.....		480	125	605	359	295	64	59,3
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	17.449	1.133	18.582	43.407	32.649	10.758	233,6
8. Aktibo finantzarioen bariazioa ...		150	65.430	65.580	-	-	-	-
9. Pasibo finantzarioen bariazioa....		-	-	-	7	7	-	-
SARRERAK, GUZTIRA		436.924	122.269	559.193	489.797	422.353	67.444	87,6
GASTUAK								
1. Pertsonaleko gastuak	A.3	332.734	70.461	403.195	363.428	363.182	246	90,1
2. Funtzionamendu-gastuak.....	A.4	76.275	32.900	109.175	61.849	54.893	6.956	56,7
3. Gastu finantzarioak.....		100	143	243	242	237	5	99,6
4. Transf. eta gtu. arrun dirulag.		2.051	10.586	12.637	7.690	7.087	603	60,9
6. Inbertsio errealak	A.5	24.158	8.072	32.230	19.633	15.596	4.037	60,9
7. Kapitalezko transferentziak.....		30	-	30	30	30	-	100
8. Aktibo finantzarioen bariazioa ...		70	-	70	-	-	-	-
9. Pasibo finantzarioen bariazioa....	A.9	1.506	107	1.613	1.506	1.506	-	93,4
GASTUAK, GUZTIRA		436.924	122.269	559.193	454.378	442.531	11.847	81,3

B. EKITALDI ITXIEN BILAKAERA (*)

Euroak milakotan

	HASIER.	BALIOG.	KOB.R./	AZKEN
	ZORRA		ORDAIN.	ZORRA
ZORDUNAK	66.740	(8.984)	(46.609)	11.147
HARTZEKODUNAK.....	(10.693)	-	10.498	(195)
GUZTIRA	56.047	(8.984)	(36.111)	10.952

(*) HKEEk mamitutako taula EHUK emandako datuak abiaburu hartuta.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
DIRUZAINZTA GELDIKINA 2020.12.31N	65.701
Eskubide aitortuak	489.797
Obligazio aitortuak	(454.378)
EKITALDIAREN EMAITZA	35.419
Eskubide kitatuak baliogabetzea	(8.984)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	-
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(8.984)
AURREKONTUAREN EMAITZA	26.435
KAUDIMENGABEZIETARAKO ZUZKIDURAREN BARIAZIOA	20
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	26.455
DIRUZAINZTA GELDIKINA 2021.12.31N	92.155
BERARIAZKO GELDIKINA	92.143
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	12

D. DIRUZAINZTA GELDIKINA GAUZATZEA	Euroak milakotan
Diruzaintza	49.133
Zordunak.....	83.847
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko zordunak (A.10).....	67.444
Ekitaldi itxietako aurrekontuko zordunak (A.10)	11.147
Aurrekontuz kanpoko kontu zordunak (A.10)	5.971
Zalantza kobragarritasunekoak (A.10).....	(715)
Hartzekodunak.....	(40.825)
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko hartzekodunak (A.11)	(11.847)
Ekitaldi itxietako aurrekontuz kanpoko zordunak (A.11).....	(195)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.11).....	(28.783)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 2021.12.31N	92.155



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. BALANTZEA 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2021	2020	PASIBOA	2021	2020
AKTIBO EZ-KORRONTEA	1.160.082	1.173.580	ONDARE GARBIA	1.129.440	1.139.348
Ibilgetu ukiezina.....	1.698	2.638	Ondarea	1.102.694	1.102.694
Ibilgetu materiala	1.154.829	1.167.359	Sortutako ondarea	(23.643)	(14.814)
Finan. inberts. epe luzera	3.555	3.583	Egozteke dauden ondare-gehikuntzak	50.389	51.468
AKTIBO KORRONTEA	133.921	105.178	PASIBO EZ-KORRONTEA	7.047	9.513
Izakinak	784	1.011	Epe luzeko hornidurak	1.061	1.331
Kudeak. eragiketeng. zord. (aurrek.) ..	77.876	66.005	Epe luzeko zorrak.....	5.986	8.182
Zord. eta kobratz. beste kontu b.	5.023	5.737	PASIBO KORRONTEA	157.516	129.897
Epe laburreko finantza inbertsioak	534	521	Epe lab. zorrak	100.580	77.187
Eskud. eta b. akt. lik. baliok. batz.	49.704	31.904	Hartzek. eta ordain. beste kontu batz.	35.158	33.818
			Aldizkatzeagatiko doikun.	21.778	18.892
AKTIBOA, GUZTIRA	1.294.003	1.278.758	ONDARE GARB. & PASIB. GUZT.	1.294.003	1.278.758

F. 2021eko eta 2020ko ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak milakotan	
	2021	2020		
Zerga-sarrerak.....	36.017	36.385		
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	407.094	391.907		
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	12.848	11.010		
Izak. bariatz. eta balioaren narriadura.....	(227)	(20)		
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	2.050	1.972		
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	457.782	441.254		
Pertsonaleko gastuak	(363.428)	(353.724)		
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(7.720)	(7.524)		
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.....	(66.584)	(59.856)		
Ibilgetuaren amortizazioa	(29.662)	(29.460)		
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(467.394)	(450.564)		
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(9.612)	(9.310)		
Ibilgetu ez-finantzarioa besterenganatzeagatiko balio narriadura eta emaitza eta salmenta egoerako aktib.	(61)	(41)		
Korronteak ez diren beste partida batzuk	1.076	674		
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA	(8.597)	(8.677)		
Gastu finantzarioak.....	(237)	(240)		
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboan besterentzeak.....	5	28		
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(232)	(212)		
EKITALDIAREN EMAITZA	(8.829)	(8.889)		



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 FUNDAZIOAK

V.2.1 MEDIKUNTZA ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA FUNDAZIOA

BALANTZEA 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2021	2020	PASIBOA	2021	2020
AKTIBO EZ-KORRONTEA	595	595	ONDARE GARBIA	599	600
Ondare historikoko ondasunak	595	595	Fundazioaren zuzkidura	595	595
			Erreserbak	5	5
			Ekitaldiko soberakina	(1)	-
AKTIBO KORRONTEA	4	5			
Eskud. eta b. akt. lik. baliokide batz.	4	5			
AKTIBOA, GUZTIRA	599	600	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	599	600

2021EKO ETA 2020KO EKITALDIETAKO EMAITZEN KONTUAK		Euroak milakotan	
	2021	2020	
Dirulaguntzak, dohaintzak eta legat.	29	29	
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	29	29	
Pertsonaleko gastuak	(23)	(23)	
Kudeaketa arrunteko bst gstu batz.	(7)	(6)	
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(30)	(29)	
JARDUERAREN SOBERAKINA	(1)	-	
EKITALDIAREN EMAITZA	(1)	-	



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2.2 EHU-REN UDA IKASTAROAK FUNDAZIOA

BALANTZEA 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2021	2020	PASIBOA	2021	2020
AKTIBO EZ-KORRONTEA	75	63	ONDARE GARBIA	134	110
Ibilgetu ukiezina.....	30	46	Fundazioaren zuzkidura	30	30
Ibilgetu materiala.....	45	17	Aurreko ekitaldietako soberakinak	42	41
			Ekitaldiko soberakinak.....	3	1
			Dohaintzak eta legatuak	59	38
AKTIBO KORRONTEA	269	256	PASIBO KORRONTEA	210	209
Berezko jarduer. zordunak	43	35	Epe lab. zorrak	7	16
Zord. eta kobratz. beste kontu b.	78	150	Hornitzaileak.....	112	130
Eskud. eta b. akt. lik. baliokide batz.	148	71	Bestelako zorrak adminis. publikoekin	49	42
			Bestelako hartzekodunak	42	21
AKTIBOA, GUZTIRA	344	319	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	344	319

2021eko ETA 2020ko ekitaldietako EMAITZEN KONTUAK		Euroak milakotan	
	2021	2020	
Berezko jardueraren sarrerak eta beste sarrera batzuk.....	933	880	
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	719	382	
Bestelako sarrerak.....	2	-	
Beste emaitza batzuk.....	10	4	
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA	1.664	1.266	
Pertsonaleko gastuak	(508)	(466)	
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(1.133)	(775)	
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(20)	(24)	
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(1.661)	(1.265)	
JARDUERAREN SOBERAKINA	3	1	
EKITALDIAREN EMAITZA	3	1	





ERANSKINAK

A.1 ALDERDI OROKORRAK

EHU zuzenbide publikoko erakundea da, nortasun eta gaitasun juridikoa eta ondare propioa duena. Bere eskumeneko esparruan, EAEn goi-mailako irakaskuntzaren zerbitzu publikoa ematen du, irakasletza, azterlan eta ikerketa bidez.

EHU Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusek osatzen dute eta askotariko helburuen arabera, era honetara egituratzen da:

- Sail eta Institutuak, irakaskuntza eta ikerketarako.
- Ikastetxeak, irakaskuntza ordenatu eta antolatzeko, koordinazio akademikoa planifikatu eta gauzatzeko eta administrazioko kudeaketa unibertsitateko tituluak eskuratzeko.
- Zerbitzu nagusiak eta unibertsitate-izaera aitortua zaien bestelako Unitateak.

2021eko ekitaldian EHUri eta haren fundazioei ezargarria zaien arautegiaren baitan, aipatzekoa da:

- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa eta geroko aldaketak.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- Euskadiren Ondareari buruzko Legea (2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiren Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko dena).
- 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina Onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 14/2012 Errege Dekretu Legea, apirilaren 20koa, Hezkuntzaren Alorrean Gastu Publikoa Arrazionalizatzeko Presako Neurriei buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Herriko Fundazioei buruzkoa.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren eta Fundazioen Erregelamendua onartzen duena.

Arau hauei, gainera, pertsonaleko gaietan ezargarria den araudi berariazkoa gehitu behar zaie.

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak

EHUren 2021eko ekitaldirako aurrekontua 2021eko otsailaren 11ko Gobernu Kontseiluak eta 2021eko apirilaren 21eko Gizarte Kontseiluak onartu zuten.

Hona hemen ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketak:

KAPITULUA	Euroak milakotan				
	GELDIKINEN TXERTAKETA	KREDITU GAIKUNTZA	BAJAK BALIOGAB.	TRANSFER. BIRBANAK.	ETA GUZTIRA
Pertsonaleko gastuak	22.993	32.866	(187)	14.789	70.461
Funtzionamendu-gastuak.....	36.167	16.127	(2.618)	(16.776)	32.900
Gastu finantzarioak.....	1	1	-	141	143
Gastu korront. transferentziak eta dirulaguntzak	4.157	5.923	(504)	1.010	10.586
Inbertsio errealak	5.800	1.926	(383)	729	8.072
Pasibo finantzarioen bariazioa.....	-	-	-	107	107
GUZTIRA	69.118	56.843	(3.692)	-	122.269

EHUk 2021eko ekitaldiko aurrekontura 69,1 milioi euroren kreditu geldikinak txertatu zituen, 2020ko abenduaren 31ko berariazko geldikinarekin zenbateko berean finantzatuak. Txertaketa horiek 2021eko martxoaren 15ean onartu ziren.

56,8 milioi euroren kreditu gaikuntzak honako diru-sarrera hauen bitartez finantzatu dira:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	
Kanpoko kontratuak.....	1.641
Hortz klinika	304
Tasak.....	1.159
Beste kontzeptu batzuk.....	793
TASEK ETA BESTELAKO SARREREK ERAGINDAKO SARRERAK	3.897
EAE	36.035
Estatuko Administrazioa	5.162
Europar Batasuna	9.073
Bestelako dirulaguntzak.....	1.417
TRANSFERENTZIA KORRONTEENGATIKO SARRERAK	51.687
ONDARE-SARRERAK	126
KAPITAL TRANSFERENTZIENGATIKO SARRERAK	1.133
GUZTIRA	56.843

Berariazko geldikina

EHUren geldikin espezifikoa egikaritzeko dauden kredituek osatzen dute, eta horiek dagozkie ikerketa-proiektuei eta azpiegiturei, xede jakin baterako kanpoko baliabideez hornituak daudenak eta zorpetutako konpromisoak dituzten gastuak, arrazoi justifikatuak direla medio gauzatu ezin izan direnak. Kreditu horiek esleipena jaso zuten unitate funtzionalen eskura saldo modura geratzen dira (Estatutuen 233.2 art.).

EHUK Txosten ekonomikoan aurkeztutako geldikin espezifikoa 2021eko abenduaren 31n 92,1 milioi euro da; hona hemen xehakapena:

PROGRAMAK	Miles de euros					
	LANGILE GASTUA	FUNTZION. GASTUAK	GASTU FINANTZAR.	TRANSFER. ARRUNTAK	INBERTSIO ERREALAK	GUZTIRA
Irakasletza.....	611	3.209	-	1.124	226	5.170
Ikerketa	36.869	34.683	-	196	4.332	76.080
Irakasletza, kirola eta kultura.....	189	238	-	95	25	547
Inbertsioak.....	-	37	-	-	506	543
Informatika.....	-	2.761	-	-	536	3.297
Nazioarteko harremanak.....	299	369	1	2.621	-	3.290
Ikerketari laguntza	325	1.636	-	-	805	2.766
Beste txiki batzuk.....	158	280	-	-	12	450
GUZTIRA	38.451	43.213	1	4.036	6.442	92.143

Geldikina osatzen duten kontu-sail eta programen lagin esanguratsua aztertuta, honako hauek azaleratu dira:

- Errepikariak diren kanpoko kontratuei dagozkien zenbatekoak ekitaldiz ekitaldi gero eta handiagoak dira, jasotako finantzaketak kontratuaren kontura gauzatutako gastua gaitzen baitu.
- Itzultzeko dauden dirulaguntza soberakinak; ez dago horien osaera eta saldoaren antzintasunaren xehetasunik.
- Proiektu zaharren geldikinei dagokienez (lehenagoko ekitaldietan abiarazitakoak) exekuzio-egoera eta kontratuaren azken egoera aztertu beharko litzateke, izan ere EHUren Estatutuen 233.3 artikuluari jarraikiz, geldikin horiek berariazko izaera galduko dute gotzi zitzaizen jardura amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzen denean.

Gastu Unitate Organikoak

EHUK kudeaketa Gastu Unitate Organikoetan deszentralizatzen du; unitate horiek aurrekontuaren kudeaketaz, kontabilizazioaz eta horiei lotutako gastuak euskarritzen dituzten agiriez arduratzen dira. 2021eko abenduaren 31n GUO kopurua 3.745ekoa zen eta horietatik 3.512, nagusiki, ikerkuntza, kanpoko kontratu edo kanpoko ekarpenekin finantzatutako ikastaroenak dira. Gastu-unitate organiko hauek kontratu txikiei dagokienez, kontratazio-organo modura jarduteko eskumena dute.

Honekin baterako taulak funtzionamendu gastuek eta inbertsio errealek azken ekitaldian izan duten bilakaera erakusten du, unitate mota hauen bidez kudeatu direnak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2019	2020	2021
2. eta 6. kap. gastuak, Gtu.Unit.Organiko zentralak kudeatutakoak	58.148	57.236	56.731
2. eta 6 .kap. gastuak, gastu-unitate organikoek kudeatutakoak ikerketa-proiektu, kontratu eta ikastaroak	22.450	19.187	24.751
2. ETA 6. KAPITULUETAKO GASTUAK GUZTIRA	80.598	76.423	81.482

A.3 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen langile gastuen kapituluaren egikaritza kontzeptuka:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2021	2020	% BARIAZ. 21/20
Irakasle funtzionarioak	96.859	99.222	(% 2,4)
Irakasle elkartuak	6.020	5.950	% 1,2
Irakasle kontratatuak.....	76.487	72.007	% 6,2
Irakasle ikerlariak.....	17.060	16.666	% 2,4
Irakasle ordezkooak	5.474	4.980	% 9,9
Graduondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak eta beste.....	4.542	4.457	% 1,9
Beste irakasle batzuk.....	16.846	15.116	% 11,4
II	223.288	218.398	% 2,2
AZL funtzionarioak.....	50.488	49.859	% 1,3
AZL lan kontratudunak eta behin-behinekoak	24.796	23.999	% 3,3
Graduondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak eta beste.....	94	107	(% 12,1)
AZL	75.378	73.965	% 1,9
Kotizazio sozialak.....	57.491	55.668	% 3,3
Itzarri BGAEari ekarpena	5.794	4.201	% 37,9
Bestelako gastuak	1.477	1.491	(% 0,9)
GUZTIRA	363.428	353.723	% 2,7

EHUko langileei ordaindutako ordainsariek 2021eko ekitaldian % 0,9ko igoera izan dute 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 18.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.



EHUren zerbitzura diharduen langileria

Langileen artean bi talde bereizten dira: Irakasle eta ikerlariak (II) eta Administrazioako eta zerbitzuetako langileak (AZL)

Ilak dira:

- Unibertsitateko irakasleen kidegoak: Unibertsitateko Katedradunak eta Unibertsitateko Irakasle Titularrak Unibertsitate Eskolako Katedradun eta Irakasle Titularrak desagertzeaz dauden kategoriak dira.
- Lan zuzenbideko erregimenarekin kontraturiko irakasleak: ULok autonomia erkidegoei aitortzen die irakasle kontratatuen erregimena arautzeko gaitasuna. EAEn kasuan, arautze hori EUSLn eta martxoaren 4ko 40/2008 Dekretuan dago jasoa, EHuko irakasle eta ikerlarien erregimenari buruzkoan. Honako kategoria hauek bereizten dira:
 - Iraunkorra: irakasle osoak, agregatuak, ikerlariak eta doktore-ikerlariak.
 - Aldi baterakoa: irakasle atxiki, laguntzaile, elkartu, emeritu, bisitari, ikerlari edo ikerketa proiektu bat egiteko obra edo zerbitzu-kontratua duten teknikari eta prestatzen ari diren ikerlariak.

Osagarriak eta ordainsarien parekatzeak

- Ordainsari osagarri gehigarriak:

2021eko ekitaldian osagarri hauen izenean 20,8 milioi euro ordaindu zaizkie Irakasle eta Ikerlariari eta EAEn horien % 85 finantzatzen du.

EUSLk 34. artikuluan dio Eusko Jaurlaritzak ordainsari gehigarriak ezarri ditzakeela irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa arloan, egoki iritzitako irizpideen arabera. Eusko Jaurlaritzaren egitekoa da ordainsari mugak finkatzea eta EHUren Gizarte Kontseiluarena bakoitzari esleitu behar zaion kopurua erabakitzea, aldeztatik Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitate Agentziak merezimenduen balorazioa eginda.

- Graduondoko ikastaro, ikerketa kontratu eta bestelakoengatik osagarriak:

Irakasle eta ikerlariak eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak 4,3 milioi euro gehigarri jasoko dituzte graduondoko ikastaroetan, ikerketa-kontratuetan, selektibitate-epaimahaietan, mintegietan eta abarretan parte hartzeagatik. 2021ean Irakasle eta ikerlariak kontzeptu hauengatik jasotako batez besteko ordainsaria 2.874 euro izan zen, guztira 1.465 pertsonarentzat (irakasle eta ikerlari guztien gainean % 25,9).

Parte hartzen duten jarduerak bakoitzean irakasleei egin beharreko ordainketak urriaren 10eko 1930/1984 Errege Dekretuak arautzen ditu. Errege Dekretu horren arabera, unibertsitateko irakasleen dedikazioa bateragarria izango da proiektu zientifiko, tekniko edo artistikoak egitearekin.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Ordainsarien beste osagarri eta parekatze batzuk:

EHUk Irakasle eta Ikerlariei ezargarria zaien araudian arautu gabeko osagarriak eta parekatzeak ordaintzen dizkie. Osagarri horiek 2021eko ekitaldian 439.471 euroren gastua eragin dute; hona hemen xehakapena:

- Lanaldi osoan diharduten irakasleek % 0,68ko ordainsari osagarria jasotzen dute 1991. urteko ordainsari osoen gainean, 1993ko ekainaren 8ko Gizarte Kontseiluak onartutakoa. 2021ean kontzeptu horren izenean ordaindutako kopurua 199.171 euro izan da.
- Errektoretzaren 1992ko abenduaren 30eko Ebazpen bitartez honako hauen arteko ordainsariak parekatzea onartu zen: unibertsitate eskoletako irakasle titularrenak -doktore gradua duten eta lanaldi osoan dihardutenak- eta fakultateko irakasle elkartuak -doktore gradua dutenak eta lanaldi osoan dihardutenak-. 2021ean parekatze honen ondorioz ordaindutako zenbatekoa 240.300 euro izan da.

Lanpostuen zerrenda eta plantilla errealak

A- Irakasleak eta Ikerlariak

Langile kopurua

KONTZEPTUA	LPZ ABENDUAREN 31N			PLANTILLA ABENDUAREN 31N		
	2021	2020	% bariatz.21/20	2021	2020	% bariatz.21/20
Unibertsitateko katedradunak.....	391	423	(% 7,6)	332	355	(% 6,5)
Unibertsitate eskoletako katedradunak	12	16	(25%)	10	11	(% 9,1)
Unibertsitateko titularrak	859	948	(% 9,4)	807	854	(% 5,5)
Unibertsitate eskoletako titularrak.....	175	220	(% 20,5)	160	195	(% 17,9)
Unibertsitateko elkartuak	856	857	(% 0,1)	(*) 673	657	% 2,4
Unibertsitate eskoletako elkartuak	140	150	(% 6,7)	91	88	% 3,4
Unibertsitateko irakasle lankideak	69	77	(% 10,4)	66	71	(% 7)
Uniberts. eskoletako irakasle lankideak	54	61	(% 11,5)	(*) 51	58	(% 12,1)
Irakasle agregatuak.....	921	874	% 5,4	772	695	% 11,1
Irakasle doktore ikerlariak	71	70	% 1,4	67	68	(% 1,5)
Irakasle osoak	59	46	% 28,3	24	16	% 50
Soin Hezkuntz. Euskal Erakund. irakasleak ..	27	29	(% 6,9)	27	29	(% 6,9)
Nautikako irakasle numerarioak	1	1	-	-	1	(% 100)
Irakasle lankideak.....	4	8	(% 50)	3	7	(% 57,1)
Irakasle atxikiak.....	802	716	% 12	552	477	% 15,7
Irakasle irakurlea.....	1	-	-	-	-	-
GUZTIZKO PARTZIALA	4.442	4.496	(% 1,2)	3.635	3.582	% 1,5
Lan kontratupeko bitartekoak.....				695	726	(% 4,3)
Ikerlariak.....				1.213	1.219	(% 0,5)
Beste txiki batzuk.....				105	101	% 4
GUZTIRA				5.648	5.628	% 0,4

(*) Guztira, 14 langile barne hartu dira, epai bidez lan kontratu mugagabeko izendatutakoak: 2 "Unibertsitateko irakasle lankideetan" eta 12 "Unibertsitate eskoletako irakasle lankideetan".



Irakasle eta ikerlari funtzionario eta lan kontratuekoen azken LZ, 2020ko urriaren 31n gaurkotutakoa, 2020ko abenduaren 17ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen. 2021eko ekitaldian, Gobernu Kontseiluak aldaketa batzuk onartu ditu eta horietako bakar bat ere ez da EHAAn argitaratu.

2021eko abenduaren 31n aldi baterako kontratua zuen irakasle eta ikertzaileen kopurua irakasleen % 60,18 ingurukoa zen.

B- Administrazioiko eta Zerbitzuetako Langileak

KONTZEPTUA	LZ ABENDUAREN 31N			PLANTILLA ABENDUAREN 31N		
	2021	2020	% Aldak. 21/20	2021	2020	% Aldak. 21/20
Behin-behinekoak	21	19	% 10,5	20	19	% 5,3
Karrerako funtzionarioak	1.215	1.160	% 4,7	477	513	(% 7)
Bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsean	-	-	-	605	477	% 26,8
Lan kontratuko langile finkoak	435	425	% 2,4	64	61	% 4,9
Bitarteko langileen kontrat. lanp. hutsagatik ..	-	-	-	(*) 337	332	% 1,5
GUZTIZKO PARTZIALA	1.671	1.604	% 4,2	1.503	1.402	% 7,2
